

Thoughts and Utterances The Pragmatics of Explicit Communication

ROBYN CARSTON

Oxford: Blackwell Publishers Ltd, 2002, x+418

Gaur egun Robyn Carston da Errelebantziaren Teoriaren bozeramaile nagusia, teoria horren sortzaile diren Dan Sperber eta Deirdre Wilsoenez gain, jakina. Postu horri behar bezala erantzunaz, Errelebantziaren Teoriaren ikuspegitik egungo Pragmatikaren auziei erantzuten die Carstonek liburu mardul honetan. Izan ere, teoria zabala eraikia dute errelebantistek; argi ageri da hori liburuko lehen bi ataletan, Carstonek kontzeptu oinarritzoei eta auzi bizi- ziei heltzen baitie horietan. Hurrengo hiru ataletan, aldiz, gai estuagoei buruz ari zaigu: 'eta' juntagailuaz, ukazioaz, eta on-line-eko kontzeptuen erai- kuntzaz.

Teoria zabala da errelebantistena, bai, baina Pragmatika alorreko behar orori erantzungo dion teoria eraiki nahi horretan izan dute ordaindu behar- rreko preziorik ere. Jason Stanleyk dioenez, 'Errelebantziaren teoriaren alde- koek komunitate nahiko itxia sortzeko joera izan dute, eta gogo txarrez itzuli dituzte beren hitz eta bereizketa propio eta bereziak hizkuntza neutralago batera'¹. Dena azaldu nahiak, sistema zabala eratzera behartu ditu, eta ez dute itxitasunari heldu beste erremediorik izan horri eusteko. Horren isla dugu Carstonek bere liburuan darabilen terminologia, guztiz errelebantista itxia: gogor eusten dio esplikatura kontzeptuari auzi bati baino gehiagori erantzuteko. Esplikaturan oinarritutako azalpenen bidez ateratzen dira estu- tasun askotatik: sarri erabiltzen dutelako justifikatzen dute esplikatura sine- garri dela. Amarru tankera hartzen zaio berehala kontzeptu horri. Kasurik nabarmenena esplikaturarena bada ere, terminologia kontu horietan bada errelebantisten itxitasuna erakusten duen makina bat adibide: oro har *belief*

¹ Stanley, J. (2005) Review: Thoughts and Utterances, *Mind and Language* 20, 3, 364-368

deritzanari (usteari, alegia), *assumption* deritzate haiek. *Mutual belief* esan ohi zaionari *mutual manifestness* esaten diote errebantistek. Eta berdin beste horrenbeste termino eta kontzepturekin.

Teoria baten barnetik idatzitako liburua bada ere, txukuna da Carstonen lana. Gaur egungo Pragmatikari errepasso polita egiten dio auzirik garrantzitsuenetan zorrotz eta serio sartuz. Hasiera-hasieratik azaltzen digu zein mota-tako pragmatika egin nahi duen: 'esaldiak ulertzean ematen diren prozesuen azalpen kognitiboa'² emango diguna. Eta bide horretatik ekiten dio lanari, bidean interes handiko ekarpenak eginaz.

Lehenengo atalean, zortzi kapitulutan, gai asko, denak sakonak, lantzen ditu Carstonek. Azpideterminazioaren gaiarekin hasi, eta horren harira, oinarrizko galdera eta arazo asko azaleratzen ditu. Azpideterminazioaren tesiari maila jakinetik heltzen dio Carstonek: esanahi linguistikoak *esandakoa* azpideterminatzen du. Bide zabala irekitzen dio gai horrek. Gaur egun Pragmatikaren kontzeptu giltzarri bihurtu den *esandakoarekin* egin du topo, eta horren eskutik eztabaida zabala datorkigu: Semantikaren eta Pragmatikaren arteko bereizketa edo muga. Hain zuzen, kontzeptu horixe, *esandakoa*, hartu dute borrokaren giltzarritzat bai Semantikaren aldekoek, bai Pragmatikazaleek. Badirudi auzi horrek erabakiko duela urtetako eztabaida luzea: zer izango duen gehiago *esandakoak*, elementu pragmatikoak ala semantikoak, esparru hura gailenduko zaio besteari.

Atal honetan, azpideterminazioaren eskutik harira etorritako kontzeptua denez, hiztunaren esanahia ere sakon aztertzen du. Griceri estu-estu atxikitako kontzeptua dugu hori. Carstonen liburuan, abiapuntutzat, bereizketa nahiko intuitiboa ematen zaigu: esanahi linguistikoa daukagu batetik, hiztunaren esanahia bestetik. Errebantziaren teoriaren bidetik, hiztunaren esanahia lantzen du zehatz-mehatz. Horren barruan, hiztunak esplizituki komunikatzen duenaren eta inplizituki komunikatzen duenaren arteko bereizketa aurkezten digu Carstonek. Esaldiak ulertzeko darabiltzagun prozesuen azalpen kognitiboa ardatzat hartuta egiten du bide osoa.

Bigarren atalak ere zortzi kapitulu ditu, eta ondo ondotik jarraitzen dio aurrekoari, Pragmatikaren erraietan kokaturiko auziak landuz. Semantikaren eta Pragmatikaren arteko bereizketatik abiatu, eta planteamendu pragmatikorik garrantzitsuenei ematen die begiratua. Griceren eskema klasikotik abiatzen da; bertan, argi bereizita zeudela zirudien, alde batean, *esandakoa* eta, bestean, inplikatura. Horien arteko zubia testuinguruak, hizlariaren eta entzulearen asmo eta usteek eta beste zenbait elementu bereizgarriak betetzen zuten.

² 3. orrialdea.

Gricerenean oinarritua da neurri handian Sperber eta Wilsonen planteamendua. Errelebantziaren Teoriak esplikatura kontzeptua gehitzen dio eske- ma klasikoari, inplikaturaren aurreko pausotzat. Honela definitzen du Carstonek esplikatura, liburu honen bukaera aldean datorren eranskinean: ‘ostentsiboki komunikatutako asuntzioa, inferentzialki garatu dena esaldiak kodetutako errepresentazio kontzeptual osagabeetako (forma logikoetako) batetik’³. Inplikatura ere horrekin konparatuz definitzen digu: ‘ostentsiboki komunikatutako asuntzioa, esplikatura ez dena; hau da, inferentzia pragmatikoko prozesuen bidez soilik deribatzen den asuntzio komunikatua’⁴. Kritikak kritika, gogor eutsi diote esplikaturaren aldeko borrokari errelebantistek. Halaxe egiten du Carstonek ere liburu honetan.

Bi teoria klasikoenez gain, bada beste batzuentzat ere lekurik Pragmatikaren eztabaidan. Batetik, Recanati buru dutela, kontestualistak dauzkagu, *esandako* aberastuago baten alde egiten dutenak. Bestetik, Bachen teoria, esateari eta inplikaturari inplizitua gehitu ziona. Horiek guztiak ekarriko dizkigu gogora Carstonek, baita beste zenbait ere. Guztien analisisa egiten badu ere, argi nabaritzen zaio bere planteamenduaren eta bere etxekoenaren aldeko apustua.

Hurrengo bi atalak zehatzagoak dira gai aldetik: ‘eta’ juntagailua aztertzen du hirugarrenean, ukazioa laugarrenean. Bietan, bi gai horiei semantikatik eta pragmatikatik eman zaizkien azalpen asko eta desberdinak aztertzen ditu; bietan, Errelebantziaren teoriak eskaintzen duen azalpenaren alde egiten du nabarmen. Azkeneko atalean, bosgarrenean, bi prozesu pragmatikori jartzen die arreta: zabaltzeari eta estutzeari. Horiek biak, Carstonek dioenez, arruntak eta ohikoak dira esaldiak ulertzean, eta, beraz, perpausaren esanahiaren eta esplizituki komunikatutako proposizioaren arteko aldea, sarri, handia izaten dela ondorioztatzen du.

Liburuak bi apendizet ditu. Lehenengoa erabilgarri bezain esanguratsua da: erabilgarria, Errelebantziaren Teoriaren Hiztegia ematen zaigulako, azalpen motz eta zehatzez hornitua. Esanguratsua, teoria batek darabilen hiztegiak, propio eta berezi izan nahi horretan, azalpena behar izateak zeresanik ematen duelako. Bigarren apendizet Griceren Elkarrizketa Printzipioak gogorarazten dizkigu.

Erreferentziak asko eta punta-puntakoak dira. Horrek islatzen du Carstonek liburu honen garrantzia: azken urteetan asko eta desberdinak izan dira pragmatikaren munduan entzun diren iritzi eta izenak. Horien guztien ar-

³ 377. orrialdea.

⁴ *ibid.*

tean garrantzitsuenak dauzkagu bilduta liburu honetan, haien teoriak ondo azalduak, eta batzuk besteekin txukun lotuak. Kontuan izan beharrekoa, gauza bakarra: besteen teoriez hitz egin duena ez da umezurtza, aitzitik, oso ezaguna da horren jatorria pragmatikarien artean. Hortik aurrera, aitzakia gutxi jar diezaiokegu liburuari: mardula eta sendoa da, trinkoegia aukeran, baina baita erabilerraza ere zenbait kasutan, aurkibide erabilgarriak baititu.

*Joana Garmendia**

ILCLI

* Lan hau egiteko, EHUko 9/UPV 00109.I09-14449/2002 proiektuaren eta Eusko Jaurlaritzaren doktorego aurreko beka baten laguntza izan dut. Eskerrak eman nahi dizkiot bidenabar Kepa Kortari, testu hau egiten beti bezainbeste lagundu didalako.